

## **BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2025**

### **1. HITZAURREA**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (DLO) 8.1 artikulua ezartzen duenez, administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten edozein erakunde aitzinetik dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dute zer helburu eta ondorio lortu nahi diren hura aplikatuta, zer epe behar den horiek lortzeko, zer kostu aurreikusten diren eta zer finantzaketa iturri dituzten.

Era berean, DLOren azken xedapenetako lehenak ezartzen du artikulua hori oinarritzkoa dela, eta toki administrazio guzietan aplikatuko zaiela.

Artikulu horretan xedatutakoaren arabera, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 11.4 artikulua xedatzen du plan estrategikoei hiru urteko indarraldirako aurreikuspenak jasoko dituztela, non eta, eragindako sektorearen izaera berezia dela-eta, komeni ez den bertze iraupen bateko plan estrategiko bat ezartzen den.

Bertzalde, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa eskatzen dituen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren printzipioak kontuan hartuta formulatu behar da plana. Printzipio horiek botere publiko guzietan lotzen dituzte, eta sektore publikoaren aurrekontu politika egokitu beharko zaie, hazkunde ekonomiko iraunkorraren eta enpleguaren sorreraren berme gisa. Arau horren barruan, dirulaguntzen plan estrategikoaren ondorioetarako, komeni da azpimarratzea 5. artikulua, urteaniztasun printzipioa definitzen duena: "herri administrazioen eta lege honen aplikazio eremuan sartzen diren gainerako subjektuen aurrekontuak egiteko epe ertaineko aurrekontu esparrua hartuko da kontuan, eta bateragarria izanen da aurrekontuak onartu eta betearazteko urteko printzipioarekin, Europako araudiarekin bat etorritik".

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikulua toki erakundeei esleitutako programazio edo plangintza ahalmenari jarraiki, Bortzirieta Euskara Mankomunitateak plan estrategiko hau osatu du.

Laburbilduz, plan honek oinarrian duen lege markoa honakoa da:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa
- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra garatzeko Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa (221-223 artikulua).
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- Bortzirieta Euskara Mankomunitatearen estatutuak.

### **2. IZAERA JURIDIKOA**

Dirulaguntzen plan estrategikoa izaera programatikoa duen kudeaketa tresna bat da, indar arautzailezik ez duena. Horregatik, plan hori onartzeak ez dakar berekin onuradun izan daitezkeen erakunde edota pertsonen aldeko eskubiderik batere sortzea. Plan estrategikoa gida

bat da, balio duena aitzinetik ezarrita dagoen arau esparruaren barrenean interes orokorreko jarduerak sustatzeko jarraibideak emateko.

Plan honetan aurreikusitako dirulaguntzak eraginkorrak izateko, dagozkion kontsignazioak sartu beharko dira mankomunitatearen urte bakoitzeko aurrekontuetan, eta dirulaguntzak arautzeko oinarriak onartu beharko dira.

Dirulaguntzak ezartzeko aurrekontu egonkortasuneko helburuak bete beharko dira; beraz, onartzen diren aurrekontu izendapenak eta horiek emateko oinarri arautzaileak helburu horietara egokituko dira uneoro.

### **3. INDARRALDIA**

Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau 2023-2025 aldian egonen da indarrean. 2025eko ekitaldia bukatutakoan dirulaguntzen bertze plan estrategiko bat onartua ez badago, ulertuko da plan hau luzatu egiten dela hurrengo onartu arte.

Oro har, mankomunitateak emandako dirulaguntzek urtebeteko exekuzio epea izanen dute eta, justifikazioaren ondorioetarako, urte naturala da aukeratzeko den epea. Zirkunstantziek hala eskatuta, urte bat baino gehiagoko exekuzio epea jartzea edo aldi hautagarria aldatzea komeni bada, dagokien dirulaguntzen oinarrietan jaso beharko da.

### **4. ESKUMENA**

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzeko eskumena duen organoa Batzorde Erabakitzailea da, mankomunitatearen estatuetakoa (12.2) artikulua jasotzen baitu hari dagokiola “mankomunitatearen plangintzak, aurrekontu arruntak nahiz bereziak eta urteko kontuak eztabaidatzea eta onartzea”.

### **5. EREMU SUBJEKTIBOA**

Dirulaguntzen plan estrategiko honek mankomunitateak emandako dirulaguntza guztiak barne hartzen ditu.

### **6. HELBURUAK**

Dirulaguntzen plan estrategikoaren lanketa hartzen da politika publikoen benetako planifikazio estrategiko bat egiteko ariketa gisa. Planaren lanketak honako helburu orokor hauek ditu:

1. Betetzea azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikuluan jasotako legezko agindua. Horren arabera, administrazio publikoek plan estrategiko bat onartu behar dute dirulaguntzak eman baino lehen.
2. Mankomunitateak tresna bat izatea bere eskumenekoak diren gaitan interes publiko eta sozialeko jarduerak babestu eta sustatu ahal izan ditzan.
3. Ekonomiaren ikuspegitik, dirulaguntzen jasangarritasuna eta eraginkortasuna hobetzeko aukera emanen duten tresnak definitzea.
4. Gardentasuna eta informaziorako sarbidea hobetzea.

### **7. PRINTZIOAK**

Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:

1. Publikotasunaren eta gardentasunaren printzipioa: printzipio hau gauzatzen da aitzinetik deialdia eginda. Deialdiak objektibotasuna, gardentasuna, publikotasuna, lehia eta funts publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko ditu.

Dena den, laguntza zuzenean eman daiteke, hala xedatuta baitago azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian. Hala eginez gero, dagokion aurrekontu izendapena izan beharko du aitzinetik.

2. Lehia askearen, berdintasunaren eta bereizketarik ezaren printzipioa: printzipio hau gauzatzen da onuradunek, interes orokorra erabat asetzeko, bete behar dituzten baldintzak zehaztuta.

3. Objektibotasunaren printzipioa: dirulaguntzak emanen dira irizpide objektibo batzuen arabera. Irizpide horiek deialdia egin baino lehenago ezarriko dira, onuradun izan daitezkeenek ezagutzen dituztela bermatuta egon dadin.

4. Eraginkortasunaren eta eragingarritasunaren printzipioak: eraginkortasuna, ezarritako helburuak betetzen, eta eragingarritasuna, baliabide publikoen esleipenean; esleipen hori kuantitatiboki eta kualitatiboki justifikatu behar da.

5. Egonkortasunaren eta gastu arauaren printzipioa: dirulaguntzak emanen dira egonkortasunaren eta gastu arauaren printzipioarekin bat etorrira, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak xedatzen duen bezala.

6. Kontrolaren eta helburuetara egokitu izanaren azterketaren printzipioa: diruz lagundutako jarduerak gauzatzean entitate eskatzaileak berdintasunaren eta bereizketarik ezaren printzipioetara egokitzen ote diren azertu eta kontrolatu behar da.

## **8. DIRULAGUNTZA LERROAK**

Mankomunitateak dirulaguntzak emanen dizkie pertsona, elkarte edo erakunde pribatuei, norgehiagoka erregimenean edo zuzeneko emakida bidez, euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko edota euskararen sustapenerako diren jardueretarako.

Dirulaguntza lerroak honakoak dira:

1. Herritar helduek euskara ikasteko laguntzak.
2. Euskarazko tokiko komunikabideak sustatzeko laguntzak.
3. Arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko laguntzak.
4. Bertsolaritza sustatzeko laguntzak.
5. Euskararen aldeko ospakizunetarako laguntzak.
6. Hizkuntza gutituen arteko lankidetzarako laguntzak.
7. Pello Apezetxea Zubiri ikerketa beka.
8. Hizkuntzaren normalizazioan eta sustapenean ari diren eragileentzako laguntzak.

Eranskinean zerrendatuta eta zehaztuta dator jarduketa plana, honako xehetasun hauek jasotzen dituena, alegia: helburua, onuraduna, partida, azalpena, emakida mota eta zenbatekoa (2023 urteari dagokiona).

## **9. DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN KONTROLA ETA JARRAIPENA**

Plan Honen kontrola eta jarraipena urtero egingen da, bi modu hauetan:

- Kontrol ekonomiko-finantzarioa, emandako dirulaguntzena: kontrol honen ardurak mankomunitateko idazkari/kontu hartzailearena da, eta egingen da indarrean dagoen legerian xedatutako baldintzetan.
- Planaren kontrol eta jarraipena: kontrol honen ardurak Batzorde Erabakitzaileari dagokio eta ekitaldi ekonomiko bakoitzaren lehen hiru hilekoan egingen da. Aitzinetik teknikari arduradunak emandako dirulaguntzen gaineko memoria osatuko du, honako xehetasunak jasoz:
  - Xedea, erakunde onuraduna eta diruz lagundutako zenbatekoa.
  - Emandako, justifikatutako, uko egindako eta itzultitako dirulaguntzak (edo itzultzeko prozeduran daudenak).
  - Helburu espezifikoaren betetze maila, ezarritako adierazlearen arabera, eta lorpen epea, diruz lagundutako ekintza lortu duten pertsonen kopurua zehaztuta.
  - Kostu efektiboak aurreikus daitezkeenekin alderatuta.
  - Ondorioak edo balorazio orokorra.
  - Hurrengo dirulaguntzen plan estrategiko egiteko iradokizunak.

## **9. GARDENTASUNA**

Emandako dirulaguntza guztiak urtero argitaratuko dira mankomunitatearen webgunean, erakunde hartzailea, zenbatekoa eta diruz lagundutako proiektua adierazita dituztela.

Arantza, 2022ko irailaren 5a

Mankomunitateko lehendakaria, Leire Mitxelena Gamio.

## ERANSKINA: DIRULAGUNTZA LERROEN GAINEKO XEHETASUNAK

### 1. Herritar helduek euskara ikasteko laguntzak

Helburua	Herritarrek euskara ikas dezaten beharrezkoak diren bitartekoak jartzea eta helburu horretan ari direnei laguntza ematea.			
<b>ONURADUNEN ZERRENDA</b>				
Onuraduna	Partida	Azalpena	Emakida mota	Zenbatekoa
Bortziriako Euskaltea	1335048200	Euskaltegiaren ohiko jarduerarako dirulaguntza (PE40).	Izenduna	32.135,75 €
Doneztebeko Ika Euskaltea	133508207	“Etxetik Plazara” egitasmorako dirulaguntza (PE36).	Izenduna	4.202,40 €
Euskara ikasleak	133508001	Euskara ikasleentzako beka (PE37).	Norgehiagoka	20.000,00 €

### 2. Euskarazko tokiko komunikabideak sustatzeko laguntzak

Helburua	Euskarazko tokiko komunikabideen jarduera laguntzea.			
<b>ONURADUNEN ZERRENDA</b>				
Onuraduna	Partida	Azalpena	Emakida mota	Zenbatekoa
Ttipi-ttapa Fundazioa	1335048203	Fundazioaren hamabortzekaria argitaratzeko dirulaguntza (PE81).	Izenduna	32.688,37 €
Xorroxin Irratia Kultur Elkartea	133508205	Xorroxin irratia jarduerarako eta emisiorako dirulaguntza (PE81).	Izenduna	15.759,00 €

### 3. Arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko laguntzak

Helburua	Arlo sozioekonomikoan euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko jarduerak diruz laguntzea eta sustatzea.			
<b>ONURADUNEN ZERRENDA</b>				
Onuraduna	Partida	Azalpena	Emakida mota	Zenbatekoa
Bai Euskarari ziurtagiridunak	133507900	Bai Euskarari ziurtagiria duten entitateei konpromisoak berritzeagatiko dirulaguntza.	Norgehiagoka	850,00 €
Bortziritan jarduera ekonomikoa garatzen duten eragileak	<i>Sortzeke</i>	Hizkuntza paisaia euskaraz paratzeko dirulaguntza (PE69/80).	Norgehiagoka	2.000,00 €

### 4. Bertsolaritza sustatzeko laguntzak.

Helburua	Bortziritan bertsolaritza sustatzea.			
<b>ONURADUNEN ZERRENDA</b>				
Onuraduna	Partida	Azalpena	Emakida mota	Zenbatekoa
Nafarroako Bertsozale Elkartea	133508201	Bortziriako Bertso Eskolaren jarduerarako dirulaguntza (PE87).	Izenduna	12.397,08 €

<b>5. Euskararen aldeko ospakizunetarako laguntzak</b>				
Helburua	Euskararekiko prestigioa areagotzeko antolatzen diren ospakizunak eta jarduerak diruz laguntzea.			
ONURADUNEN ZERRENDA				
Onuraduna	Partida	Azalpena	Emakida mota	Zenbatekoa
Nafarroa Oinez	133508202	Nafarroako ikastolen aldeko ospakizunerako dirulaguntza (PE163).	Izenduna	1.000,00 €
Herri Urrats	133508204	Iparraldeko ikastolen aldeko ospakizunerako dirulaguntza (PE163).	Izenduna	1.000,00 €
Sortzen	<i>Sortzeke</i>	Nafarroako euskal eskola publikoaren aldeko ospakizunerako dirulaguntza (PE163).	Izenduna	1.000,00 €
Korrika	1335048208	Euskararen aldeko lasterketarako dirulaguntza (PE49).	Izenduna	1.000,00 €

<b>6. Hizkuntza gutituen arteko lankidetzarako laguntzak</b>				
Helburua	Euskararen biziberritze esperientzia munduan hizkuntza gutituak dituzten komunitateetara hedatzeko jarduerak diruz laguntzea.			
ONURADUNEN ZERRENDA				
Onuraduna	Partida	Azalpena	Emakida mota	Zenbatekoa
Garabide Elkartea	1335048206	Hizkuntza gutituen lankidetzarako dirulaguntza (PE163).	Izenduna	1.575,90 €

<b>7. Pello Apezetxea Zubiri ikerketa beka</b>				
Helburua	Pello Apezetxea euskaltzaleak bere bizitzan landutako arlo ezberdinetan, hala nola, antropologian, filologian, toponimian edota literaturan, ikerketa sustatzea.			
ONURADUNEN ZERRENDA				
Onuradunak	Partida	Azalpena	Emakida mota	Zenbatekoa
Beka norbanakoek edota ikerketa egiteko berariaz sortutako lantaldeek jaso ahal izango dute.	<i>Sortzeke</i>	Beka deialdia lau urtean behin egingen da, eta bi ekitaldi ekonomikori eragingen dio, lehen urtean 2023 eta 2024 urteei (PE85/128).	Norgehiagoka	8.000,00 €

<b>8. Hizkuntzaren normalizazioan eta sustapenean ari diren eragileentzako laguntzak</b>				
Helburua	Euskararen normalizazioan, garapenean nahiz sustapenean ari diren mota guzietako eragileei, Bortzirietaatik gaindikoak izanda ere, dirulaguntza ematea.			
ONURADUNEN ZERRENDA				
Onuradunak	Partida	Azalpena	Emakida mota	Zenbatekoa
Euskararen sustapenean diharduten erakunde ezberdinek egindako eskaerei erantzunen zaie lerro honen bitartez. Batzorde Erabakitzaileak urteko azken bilera egiten duenean urtean zehar izandako eskaera guziaz aztertuko ditu eta horren arabera baloratuko du dirulaguntzak nola banatu.				1.500,00 €